

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOTIK ERRETIRATU ETA, HORREN ONDORIOZ, HAI EK ZAINTEKO ZEIN IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOAN IBILGETZEKO ZERBITZUEN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

13. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea zerbitzu hauek ematea da:

a) Ibilgailuak bide publikotik erretiratzea nahiz erretiratzen hastea, behar diren udal-zerbitzuen jarduna baliatuta.

b) Udal-lokaletan gordetako ibilgailuak zaintzea.

c) Ibilgailuak bide publikoan ibilgetzea prozedura mekanikoen bidez.

3. artikulua.- Honako hauek ez dute tasa hau ordaindu beharko:

1) Behar den moduko baimena duten kabalkada, desfile, segizio, kirol-saio edo beste jardura nabarmenen bat eginen den ibilbidean aparkaturik daudelako erretiratzen diren ibilgailuak.

2) Dauden tokian bide publikoa konpontzea edo garbitzea galarazten dutelako erretiratzen diren ibilgailuak.

3) Haien jabeek ebatsi dizkieten ibilgailuak, bide publikotik erretiratu edo bertan ibilgetzen diren kasuetan.

Horretarako, ibilgailu bat haren jabeak ebatsi diotela joko da jabeak lapurretaren salaketaren kopia bat aurkezten badu, eta horretan adierazten diren salaketa-data eta -ordua ibilgailua erretiratu edo ibilgetzearenak baino lehenagoak badira. Halaber, ibilgailua ebatsia izan dela joko da, baldin eta lapurretaren zantzu agerikoak baditu (sarraila indarrez irekia, zubi elektrikoa, etab.).

4) Bahiturako xedez gordetako ibilgailuak, Iruñeko Udaleko Derrigorrezko Diru-bilketako Departamentuak hala erabakita.

5) Aparkatze arautuko eremutik erretiratutako ibilgailuak, baldin eta gerora erakusten bada salaketa baino lehenago jarria zutela tiketa, edo ordainketa egina zutela telefono mugikorraren bidez ordaintzeko sistema baliatuta.

Tasaren sortzapena

4. artikulua.- Ibilgailua erretiratzeko tasa zerbitzua hasten den unean sortuko da.

5. artikulua.- Ibilgailua zaintzeagatik ordaindu beharreko tasa sortuko da behin ibilgailuaren gidariak edo jabeak hori udal-biltegiaren dagoela jakin eta 24 ordu iragan eta gero.

Subjektu pasiboa

6. artikulua.- Kasuan-kasuan ezarri behar diren arauekin bat, hauek ordaindu beharko dute tasa: ibilgailuaren gidaria, titularra, gordetzailerak edo ibilgailuaren erantzulea.

Karga-oinarria

7. artikulua.- Karga-oinarria erretiratu, zaindu edo ibilgetzen den ibilgailu bakoitza da.

Salbuespenak

8. artikulua.- Ez da onartuko lege edo erregelamenduetako xedapenek hala aginduta nahitaez aplikatu beharrekoak direnez beste albuespenik.

Tarifak

9. artikulua.- Ibilgailuak erretiratzeagatik –hala erretiratzen hasiak badira nola ekintza hori erabat osatu bada– eta horiek zaindu edo ibilgetzeagatik aplikatu beharreko tarifak Ordenantza honetako Eranskinean finkatu dira.

Tributuaren kudeaketa

10. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan eta Udalaren Ibilgailu-biltegiaren jarritako eskudirutako kuxetan ordaintzen ahalko dira.

11. artikulua.- Erretiratutako ibilgailuak haien jabeei itzuliko zaizkie, baldin eta baldintza hauetako bat betetzen bada:

- 1) Ibilgailu bat erretiratu, zaindu edo ibilgetzeak sortzen dituen tasak benetan ordaindu izana.
- 2) Alorrek ibilgailu bat erretiratu, zaindu edo ibilgetzeak sortzen dituen tasak atzeratzeko edo zatikatzeak eskaera onartu izana
- 3) Tasa ordaintzeko beharrik ez izatea, 3. artikuluan ezarritakoarekin bat.

12. artikulua.- Tasa honen likidazioa ordaintzeak ez du ezertan galarazten zirkulazio-arauak hausteagatik izan daitezkeen zehapen edo isunak pagatu beharra.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- ZERBITZU EGITERA JOAN ETA IBILGAILUA UDALAREN BILTEGIRA ERAMATEKO LANAK HASTEA, BEHIN HORIEK HASITA GIDARIA EDO HARK BAIMENDUTAKO PERTSONA AGERTZEAK LANA BUKATZEA GALARAZTEN BADU ERE

- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg edo gutxiagokoa duten ibilgailuak	50,00 euro
- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak	84,00 euro

II. EPIGRAFEA.- ZERBITZUA OSORIK EGIN ETA IBILGAILU ARAU-HAUSLEA UDALAREN BILTEGIRA ERAMATEA

- Bizikletak	50,00 euro
- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg edo gutxiagokoa duten ibilgailuak	100,00 euro
- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak	170,00 euro

III. EPIGRAFEA.- IBILGAILUA BILTEGIRA ERAMAN ETA INORK ERRETIRATU GABE 24 ORDU EGINEZ GERO, ZAINZAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TARIFA, EGUN EDO EGUN-ZATI BAKOITZEKO

- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg edo gutxiagokoa duten ibilgailuak	8,00 euro
- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak	15,00 euro

IV. EPIGRAFEA.- IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOAN IBILGETZEAGATIK, IBILGAILU BAKOITZEKO

- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg edo gutxiagokoa duten ibilgailuak	85,00 euro
- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak	159,00 euro

V. EPIGRAFEA - Ibilgailuen berezitasunengatik Udalak dituen baliabideekin ezin eraman badu eta zerbitzua egiteko beste batzuegana jo beharra baldin badu, kobratu beharreko tasa honako hauek osatuko dute: Udalak ibilgailuak erretiratzeko lana egiten duen enpresari ordaindu behar dion kopurua eta horren gaineko % 20, administrazio-arloko gastu orokorrak medio.